



ARABAKO GARBIGUNEEN SAREAN HONDAKINAK HARTZEKO PROTOKOLOA

1. Eremua eta xedea

Protokolo honen xedea da arautzea nola jaso behar diren etxe partikularretan, denda txikietan, bulegoetan eta halakoetan sortzen diren hondakinak, hain zuzen, hiri hondakinak jasotzeko ohiko edukiontzietan utzi ezin direnak.

Protokolo hau Arabako Foru Aldundiak kudeatutako garbiguneetan aplikatuko da.

2. Azalpena

Garbigunea etxeko hondakin bereziak aldi batez jaso eta biltzeko instalazio itxi eta zaindua da; eta haren helburua da herritarrei gaikako bilketarako borondatezko biltegi zerbitzua eskaintzea.

3. Garbigune sareak eskaintako zerbitzuaren helburuak

- Etxeko hondakinak gaika banatzea, batez ere arriskutsuak.
- Ekiditea zaborra biltzeko zerbitzu arruntan bidez ezabatu ezin diren hondakinak kontrolik gabe botatzea.
- Aprobetxatzea berrerabili, birziklatu eta balioztatu daitezkeen etxeko hondakinetako materialak. Hartara, energia eta lehengaiak aurrezteko lortuko da, bai eta ezabatu beharreko hondakin kantitatea murriztea ere.
- Irtenbiderik onena ematea hondakin mota bakoitzari. Horren xedea da materialen balioztatze handiena eta kudeaketa osoaren kostu txikiena lortzea.

4. Garbigunearen zerbitzu ordutegia

Garbiguneak, oro har, astelehenetik ostiralera 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara eta larunbatetan 09:00etatik 14:00etara egongo dira zabalik. Ordutegi horrek aldaketak izan ditzake, instalazio bakoitzaren ezaugarri eta beharren arabera.

Garbigunea itxita egongo da egutegi ofizialeko eta tokian tokiko jaiegunetan. Azken horiek zona bakoitzean zehaztuko dira.

Arabako Foru Aldundiak onartuko du ordutegi horien gaineko zernahi aldaketa eta, era berean, berak izango du zentroari eta haren erabiltzaileei aldaketa horren berri emateko ardura.



5. Sarrera kontrola

Garbiguneko langileek kontrolatuko dute nor (erabiltzaileak) sartzen den instalaziora, eta azken horiek, gutxienez, hauek jakinarazi beharko dituzte:

- . Izena eta bi abizen
- . Matrikula
- . Harremanetarako telefonoa
- . Erabiltzailearen etorkia
- . Hondakin mota
- . Hondakinaren etorkia
- . Obra txikietako hondakinak badira, zehatz-mehatz adieraziko da hondakin horiek nondik diren ekarriak, hau da, helbidea eta eraikuntza enpresa jakinaraziko dira.
- . Kantitatea
- . Oharrak

6. Garbiguneen erabiltzaileak

Instalazioak honako erabiltzaile hauen etxeko hondakinak onartuko ditu:

6.1_Etxeak

6.2_Baimen berezipean (ikus 9. paragrafoa):

- . ETEak
- . Denda txikiak
- . Bulegoak
- . Ostalaritza
- . Nekazaritza ustiategiak

6.3_Honako sortzaile hauek ez dute garbiguneetan hondakinak botatzerik izango:

- . Udal hondakinak biltzen dituzten enpresek.
- . Hondakin arriskutsuak eta ez arriskutsuak biltzen dituztenek.
- . Industriek, oro har
- . Dendek: merkataritza guneko edo saltegi handiek

Ezin izango da enpresa, denda eta zerbitzuetako hondakinik bota, baldin eta hondakin horiek haien ekoizpen prozesu nagusiarekin zerikusi zuzena badute.



7. Onartzen diren hondakinak

Etxeko hondakin arriskutsuak:

Oro har, jarraian adierazitako hondakin motak onartuko dira, baldin eta zehaztutako kantitateak errespetatzen badira. Beste hondakin mota bat bota nahi izanez gero edo onartutako kantitate muga gaindituz gero, eskaera berezia aurkeztuko da (ikus 9. paragrafoa).

Hondakin mota	Gehienez onartutakoa asteko	Gehienez onartutakoa urteko
. Bateriak (nikel-kadmiozkoak, berunezkoak, ioi-litiozkoak, etab.)	4 unitate	mugarik gabe
. Botoi-pilak, alkalinoak eta grafitozkoak, tamaina edozein dela ere	3 kg	mugarik gabe
. Fluoreszenteak eta bonbillak	10 unitate	20 unitate
. Motor olio erabilia	25 litro	200 litro
. Landare olioak	15 litro	200 litro
. Etxetresna elektriko handiak (hozgailua, labea, ikuzgailua, etab.)	4 unitate	6 unitate
. Etxetresna elektriko txikiak eta ertainak (mikrouhin labeak, telebistak, irabiagailuak, etab.)	5 unitate	10 unitate
. Etxeko produktu arriskutsuen ontziak (garbiketa produktuak, etab.)	20 unitate	mugarik gabe
. Etxeko produktu arriskutsuen hondakinak (garbiketa produktuak, etab.)	10 litro	40 litro
. Aerosolen ontzi hutsak	mugarik gabe	mugarik gabe
. Aerosolak, produktuz beteak	5 unitate	15 unitate
. Erradiografiak	5 unitate	20 unitate
. Tinta kartutxoak eta inprimatze tonerrak	10 unitate	mugarik gabe
. Informatikako hondakinak (ordenagailuak, teklatuak...)	4 unitate	10 unitate
. Pintura ontzi hutsak	10 unitate	20 unitate
. Pinturak, bernizak, disolbatzaileak (halogenatuak eta ez halogenatuak), etab.	20 kg	50 kg
. Nekazaritza eta abeltzaintzako produktuen ontziak	mugarik gabe	mugarik gabe
. Produktu fitosanitarioak, nola iraungita daudenak hala erabiltzen ez direnak	5 litro	25 litro
. Obra txikietako zuntz-zementua	Baimen bereziarekin	



Etxeko hondakin berezi ez arriskutsuak:

Hondakin mota	Gehienez onartutakoa asteko	Gehienez onartutakoa urteko
. Papera eta kartoia	mugarik gabe	mugarik gabe
. Pneumatikoak (1,20 m-ko diametrotik beherakoak)	4 unitate	8 unitate
. CDak eta DVDak	mugarik gabe	mugarik gabe
. Paletak	2 unitate	10 unitate
. Zurezko ontziak	mugarik gabe	mugarik gabe
. Altzariak	4 unitate	20 unitate
. Metalak	mugarik gabe	mugarik gabe
. Ehunak: erabilitako arropa, ehunak eta oinetakoak	mugarik gabe	mugarik gabe
. Etxeko ontziak	mugarik gabe	mugarik gabe
. Plastikoak eta bilgarriak	1 m ³	3 m ³
. Tresnak eta beste zenbait (lastairak, etab.)	4 unitate	15 unitate
. Obra txikietako hondakinak: <ul style="list-style-type: none">. 112/2012 Foru Dekretuak 9. artikuluan xedatutakoaren arabera bereziak. Erantsi obra txikirako baimenaren kopia	. Aurkeztutako baimenaren arabera. . Baimenik aurkeztu ezean, bost (5) zaku baino ez dira onartuko.	
. Lorategietakoak eta inausketa hondarrak	1 m ³	mugarik gabe
. Beirazko ontziak	50 kg	150 kg
. Beira laua, kristala, etab.	50 kg	100 kg

* Obra txikietako hondakinak honako era honetan bereiziko dira:

- a) Hartziko hondakinak: (adreiluak, hormigoia, lauzak, zeramika, etab.)
- b) Igeltsu hondakinak: (moldadurak, panelak, sabai aizunak, etab.)
- c) Zurezko hondakinak.
- d) Beira laua.

8. Hondakin ez onartuak:

- . Hondakin onartuen zerrendetan agertzen ez direnak.
- . Enpresa, denda eta zerbitzuetako ekoizpen prozesu nagusiarekin zerikusi zuzena duten hondakinak.
- . Hondakin erradioaktiboak.
- . Hondakin biosanitarioak.
- . Animalia hilak.
- . Egoera txarrean dauden ontzietan entregatzen diren hondakin arriskutsuak.
- . Material leherkorak.
- . Bereizi gabeko hondakinak.
- . Identifikatu gabeko hondakinak.
- . Deskargatzean, pertsonak, ondasun materialak edo ingurumena arriskuan jar ditzaketen hondakinak, edo garbiguneko lanen antolaketan arazo larriak eragin ditzaketenak.



- Obra txikietako amianto hondakinak, baldin eta ez badaude ondoren zehazten den moduan arauz prestatuta garbigunera eramateko:

Amiantoa duen materiala zuzen paketatuta eramango da, lodiera egokiko materialez egindako poltsa eta mintzetan bilduta. Bilgarri hori, gehienetan, galga 400eko polietilenoazkoa izango da eta dena bilduko du, hau da, ez du amiantoa duen materiala edo haren zatirik agerian utziko.

9. Baimen bereziak

Baimen berezia beharko da honakoetan:

- Onartutako hondakinen zerrendan agertzen ez diren hondakinak entregatzean (7. paragrafoa).
- Onartzen den gehieneko hondakin kantitatea gaintitzean.
- 6.2 puntuak erabiltzaile onartzen dituen enpresa edo jarduera ekonomiko guztiak.
- Protokolo honetan jasota ez dagoen aparteko beste edozein egoeratan.

Baimen horrek Arabako Foru Aldundiak ematen duen egunetik uneko urtearen abenduaren 31ra arteko balioa izango du. Urtea amaituta, oraindik ere baimen bereziaren beharra badago, beste eskaera bat egin beharko du interesdunak.

Horrelakoetan, eskaera (1. eranskina. Baimen bereziaren eredia) Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzura (fax zenbakia: 945181915; posta elektronikoko helbidea: mambiente@alava.net) bidali beharko da, edo Arabako Foru Aldundiko Sailkatutako Jardueren eta Hondakinen Atalarekin harremanetan jarri (telefonoa: 945181818). Eskaeran argi adieraziko dira honakoak: hondakin mota, jatorria eta kantitatea.

10. Kudeaketa zuzenaren urteko egiaztagiria lortzea

Garbigunera eramandako hondakinak zuzen kudeatu direla egiaztatzen duen urteko egiaztagiria lortu nahi duten garbiguneko erabiltzaileei aplikatzeko. Erabiltzaile horiek garbigunea erabili aurretik jakinaraziko dute egiaztagiri hori lortzeko interesa.

Urteko egiaztagiri hori egiteko, hiru hilabete izango dira urtea bukatzen denetik aurrera.

Egiaztagiri hori eskatzeko, egin eskaera. Eskaera horretan protokoloaren 1. eranskinean adierazten direnak bidaliko dira Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzura (fax zenbakia: 945181915; posta elektronikoko helbidea: mambiente@alava.net), edo Arabako Foru Aldundiko Sailkatutako Jardueren eta Hondakinen Atalarekin jarri beharko da harremanetan (telefonoa: 945181818).



11. Erabiltzailearen erantzukizuna:

1. Hondakinak gaika entregatuko ditu erabiltzaileak.
2. Egoera likidoan edo oretsuan dauden hondakin arriskutsuak zuzen identifikatuko dira, eta zaintza egoera onean dauden ontzi itxietan entregatuko dira.
3. Halaber, dituen ezaugarriak edo arriskugarritasuna direla-eta era berezi batean entregatu beharreko hondakinak garbigunearen arduradunen jarraibideen arabera entregatuko dira.
4. Erabiltzaileak garbigunearen arduradunaren jarraibideak jarraituko ditu hondakinak botatzean.
5. Zuzen eta astiro (gehienez, 20 km/h) gidatuko da garbigunean, sarbideak libre utziz.
6. Utzikeria dela eta, erabiltzaileak garbigunea zikindu edo hartan kalteak eragiten baditu, behartuta dago garbitzera edo eragindakoak konpontzera.
7. Ekipo informatikoak eta CDak entregatzen baditu, erabiltzaileak, aldez aurretik, ezabatu egingo du haietan dagoen informazioa. Haietan jasotzen den informazioa dela eta, Arabako Foru Aldundiak ez du inongo erantzukizunik izango.
8. Debeztatuta dago garbigune sarreran hondakinak botatzea.

12. Arau hausteak

Protokolo honek arautzen dituen gaiak dagokienez, administrazioko arau hausteak izango dira haiei buruzko arauetan ezarritakoa urratzen duten egintza edo omisioak.

12.1- Administrazio arau hauste oso larri dira:

- Protokolo honen 8. artikuluan jasotako hondakinak botatzea.
- Zernahi arau hauste larri behin eta berriro egitea.

12.2 - Administrazio arau hauste larri dira:

- Zaintzailearen baimenik gabe sartzea garbigunean.
- Bidegabe botatako hondakinak jaso edo garbitu nahi ez izatea.
- Garbiguneko kudeatzaileek hondakinen izaera, kantitatea edo etorkiari buruzko eskatutako informazioa emateko betebeharra ez betetzea edo datu aizunak edo iruzurrezkoak ematea.
- Pertsonentzat, beste ibilgailu batzuentzat edo azpiegiturako elementuentzat arriskutsuak izan daitezkeen ibilgailuak eta, oro har, protokolo honek ez baimendutakoak sartzea eta erabiltzea garbigunean.
- Ikuskatze, lagin hartze eta gainbegiratze lanak era aktiboan edo pasiboan eragozteak.
- Garbiguneko langileen jarraibideak ez betetzea, garbiguneko segurtasunarekin zerikusia dutenetan.
- Edozein eratako hondakinak ipintzea garbiguneko sarreran.
- Zernahi arau hauste arin behin eta berriro egitea.



12.3 - Arau hauste arin dira:

- . Garbigunea erabiltzean, zaintzailearen jarraibideak ez betetzea.
- . Garbiguneko edukiontzietan hondakinak botatzea, garbigunearen arduradunak haiek ikuskatu gabe.
- . Protokolo honek araututakoa urratzen duten egintza edo omisioak.

13. Zigorrak

Arau hausteez zigor hauek izango dituzte:

- . Arau hauste oso larriak: 1.500,01 - 3.000,00 euro bitarteko isuna eta/edo garbigunea erabiltzeko debekua.
- . Arau hauste larriak: 750,01 - 1.500,00 euro bitarteko isuna.
- . Arau hauste arinak: 300,00 - 750,00 euro bitarteko isuna.

Zigorrak ezartzean, kontuan izango dira arau haustea egitean nahitasunik izan den, behin eta berriro egin den eta eragindako kalteen izaera.

Horrez gain, jarri daitezkeen zigorrak gorabehera, arau haustea lehengoratu egingo du egoera eta ordaindu egingo ditu jabari publikoko ondasunetan eragindako kalteak. Arabako Foru Aldundiko zerbitzu teknikoek balioetsiko dituzte kalte horiek.

Arabako Foru Aldundiak zigortu ahal izateko, ezinbestekoa izango da dagokion espedientearen abiaraztea eta izapidetzea, lege eta arau xedapenetan ezarritakoaren arabera.